

Amets Zurutuza Eskisabel

B maila • 1 aipamena

Kaixo, ni Amets Zurutuza naiz, Beasaingo Andramendi eskolako DBH3ko ikaslea. Niri irakurtzea eta bidaiatzea gustatzen zaizkit. Nahiz eta liburuak irakurtzea nahiago dudan olerkiak ere gustatzen zaizkit eta asko poztu nau sari bat irabazi izanak.



BEGIRADAK

Begiraden indarra
aurpegiaren armada.

Gozoa ageri da
amaren begietan,
tristea aldiz,
sufritzen gaudenean,
gorri eta itsusi
gorrotoaren aurrean.

Begiraden indarra
aurpegiaren armada.

Begirada bat,
sentipen bat,
hitzak soberan
dena da agerian.

Begien elkarrizketan
mundu oso bat
keinu bakarrean.

Begiraden indarra
aurpegiaren armada.